

Denboraren makina
Frankismoaren
prentsa uniforme

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Zumaia: arrauna
eskuan gazi-gezak
dastatzen

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Huarte

Arte Garaikideko Zentroa

Modan daude arte zentroak. Lehen museoa edukitzeak hiriari nolabaiteko estatusa ematen bazion, orain arte zentroen garaia da. Bilduma propioa osatu eta erakustez arduratu ordez, behin-behineko erakusketak eta proiektu zehatzak ekoiztu eta kudeatzen dituzten gune dinamiko izatea da zentro hauek duten ezaugarria, eta asmoen artean izan ohi dute lekuan lekuko artista gazteen bilgune izatea, baita bertako sorkuntza eta nazioartekoa uztartzea ere. Adibide sorta ederra badugu gure inguruan: Gasteizen Krea, Donostian Tabakalera edo Uharten Huarte Arte Garaikideko Zentroa, esate baterako. Argi-ilunez eta zalantzez betetako zenbait urteren ostean, azken hori izan da ofizialki bere atek zabaltzen lehenengoa.

2008ko urtarilaren 20a

NERE LUJANBIO

ARGIA
29

Etorkizun beltzeko kutxa beltza

IRUÑERRIAN KOKATUTAKO herria da Uhar-
te, 5.000 biztanle inguru dituena. Inguru-
nea ezagutzen ez duenak arretaz gidatu
beharko du hara iristeko, bide seinaleek ez
baitute laguntza handirik ematen. Baina
behin Uhartera iritsita ez dago galbiderik,
herri erdian kutxa beltz handia eraiki dute
sare metalikoz inguratua, arte garaikideari
eskainitako gun e berria, eta agintari-
ek eta zuzendaritzak behin eta berriz azpimar-
ratzen dutenez, Nafarroako lehena. Bitxia da
horrelako herri txikiko etxebizitzaren artean
bat batean eraikin berriarekin topo egitea.

Sentsazio arraroa eragiten du, eraikina
inguruneari ez balegokio bezala, arrotz
balitzaio bezala.

Dena den, sentsazioa soilik izango den
esperantzaren sarreraren bila aurrera egin, eta
bigarren zantzua ere ez da hobea. Kanpotik
begiratuta, kutxa beltza hermetikoa da;
beharbada hotzagatik, ate guztiak itxita ditu;
eta larunbat eguerdia izan arren zalantza era-
giten du, irekita ote dagoen. Ateetako bat
hautatu, bultza, eta bai, zabalik dago. Beraz,
aurrera, deskubritu dezagun kutxak barruan
gordetzen duena.





HUARTEKO ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA

Jendaurreko ekitaldietarako prestatua dago eraikina.

Kanpotik beltza dena, argia da barruan. Ez dago dekorazio handirik, espazio garbiak eta zementuaren biluztasuna dira nagusi. Guztira 6.500 metro koadro ditu eraikinak, horietarik 2.300 erakustaretoetara bideratuak. Hiru solairutan banaturik, hiru erakustareto ditu. Lehenengo pisukoa erabat itxia da, argi naturalari biderik uzten ez diona. Beste biak aldiz bai: elkarrekin komunikatuak daude eta argiztapen naturalak janzten ditu. Horiez gain, artistentzako tailerrek, jarduera didaktikotarako guneak, kafetegiak, mediatekak eta ekintza artistikoak aurrera eramateko ere erabiliko den aparkalekuko espazioak betetzen dute eraikinaren azalera.

Zentroaren lan ildo nagusia arte garaikideak hartuko badu ere, askotariko erabilpena izango duen zentroa abian jartzea omen da arduradunen asmoa. Haurrentzat nahiz helduentzat tailerak izango dira, antzerki eta dantza emanaldiak ere antolatuko dituzte eta musikak ere izango du tartea programazioan.

Asmo onak bai, jendea falta


Iazko apirilean, zentroa zabaltzeko prest egon aurretik eta hauteskundeekin estuki

Mekako Kaaba dakar gogora kanpotik Huarte Arte Garaikideko Zentroak. Hemen erromesak falta dira ordea

loturiko ekitaldian, Miguel Sanz Nafarroako presidentek inaugurazio plakari estalkia kendu zion arren, zentroaren ibilbidea joan den urrian abiatu zen. Bertako eta nazioarteko artisten erakusketak antolatuta, hasieratik etorkizunean zentroak izan nahi duenaren bidea argi utzi dute.

Udalak bultzatu eta aurrera eramandako proiektua izan arren, zentroaren kudeaketa Donostiako Ordóñez-Falcón Fundazioaren esku geratu zen lehiaketa publikoaren ostean. Fundazioa argazki eta bideo bilduma garrantzitsua- ren jabe izan arren, proiektu honetarako bilduma propioak alde batera utzi eta aldi baterako proiektuak bultzatzea erabaki zuten. Programazioa zabala eta askotarikoa izango omen da, eta hori aurrera eramateko, arte munduan ibilbide garrantzitsua duten pertsonen osatutako aholku batzordearen irizpideak jarraituko dituzte.

Inaugurazioaren inguruko ekitaldi eta adierazpenetan azken aldi horrelako proiektuei loturik maiz entzun diren hitzak aditu ahal izan genituen: bertakoa eta nazioartekoa lotuko dituen gunea izango



HUARTEKO ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA

Eraikina beltza da kanpotik. Barrutik berriz, argitasuna da protagonista. Espazio garbiak eta zementuaren biluztasuna nagusi.

dela, artista nafarren babesgune izango dela, bilduma propioa bultzatu ordez esperimentazioa eta berrikuntza bultzatzea izango duela ardatz, artea jendearen eskura jartzea duela asmoa... Hitz ederrak dira, eta interesgarriak. Asmo on horiek guztiak errealitate bihurtzea ordea, ez da nolanahi-ko lana izango.

Eraikina bisitatu eta kutxa beltzetik ateratakoan, tamalez, hasieran izandako sentsazioa ez da desagertu, areagotu baizik. Eraikineko bisitari bakarra neroni izateak panorama nahiko tristea irudikatzen du, eta etorkizunari begira ez du itxaropentsu izateko aukera handirik ematen. Kanpotik begiratuta Huarte Arte Garaikideko Zentroak Mekako Kaaba dakar gogora. Hemen erromesak falta dira ordea.

Urrunegi joan nahi eta ezin pisua eraman

Nahiz eta Huarte Arte Zentroa berriki zabaldu den, ibilbide luze eta zalapartatsu xamarra izan du azken urteetan. Uharteko udalak proiektua abian jartzea erabaki zuenetik aldeko eta kontrako iritziak izan dira, proiektuaren egokitasuna, helburuak, kudeaketa,

finantzaketa eta etorkizunarekiko zalantzak piztu dituztenak.

Nafarroan arte garaikideari eskainitako azpiegitura baten beharra azpimarratu arren, hasieratik sortu ziren kritikak gisa honetako proiektua Uharteko udalarentzat gehiegizko pisua izango zela ziotenen aldetik. Askok proiektua operazio urbanistiko eta ekonomiko modura ikusi zuten, eta behin eta berriz salatu zuten herriko errealitateetik urrun zegoela eta benetako behar artistiko eta kulturalak ez zituela kontuan hartzen.

Lehiaketa bidez zentroaren kudeaketa Ordóñez-Falcón fundazioari eskaini izanak ere kritika eta zalantza ugari piztu zituen, zenbaiten iritziz ez baitzen lehiaketa garbia izan eta esleipena alde zuzenetik erabakita egoteko zantzuak omen zeuden.

Baina zalantzarik gabe, arazo gehien eragin dituen kontua zentroaren finantzaketari dagokiona izan da. Zentroa zabaltzerako, Uharteko udalak 9 milioi euro inguru gastatu zituen eraikinean eta proiektua martxan jartzeko lanetan. Nafarroako Foru Gobernuak milioi bat euroko laguntza

Nafarroako Gobernuak
Huarte Arte Garaikideko
Zentroaren aurrekontua bere
gain hartzeko konpromisoa hartu
du, hori bai, zentroko
patronatuan gehiengoa izatea
baldintza modura jarrita

Enrique Ordóñez, Ordóñez-Falcón
Fundazioko presidentea da Huarte Arte
Garaikideko Zentroaren arduraduna.

eman du orain artean. Kudeaketa gas-
tuei dagokienez, bestalde, lehiaketa
irabazi zuen proiektuak urteko 1,2
milioi euroko aurrekontua aurkeztu
zuen. Hasieran, aurrekontu hori
Uharteko Udalaren esku egongo zela
aipatu bazen ere, gerora, Nafarroako
Gobernuak gastuaren erdia (600.000
euro) bere gain hartzeko ardura hartu
zuen, lehenengo urtean behintzat.
Zentroaren inauguraziotik bi hilabete
besterik igaro ez zirenean, ordea,
Uharteko Udalak –2007ko maiatzeko
hauteskundeez geroztik NaBai-ren
eskuetan dago– aurrekontua gehie-
gizkoa zela –udaleko ohiko aurrekon-
tuaren %20, hain zuzen– eta ezin
ziola aurre egin erabaki zuen, Nafa-
rroako Foru Gobernuari bere gain
har zezala eskatuz. Gobernuak eskae-
ra onartu eta Huarte Arte Garaikideko
Zentroaren aurrekontua bere gain hartzeko
konpromisoa hartu du, hori bai, zentroko
patronatuan gehiengo izatea baldintza
bezala jarrita.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Hasi besterik ez da egin Huarteren bidea
eta ziur egon gaitezke oraindik zalaparta eta
ika-mika ugari izango dela bere inguruan.
Tamalez, guztia artearen, bertako artisten eta
herritarren kaltetan. ■

Jaso astero ARGIA etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Taloiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–

Aukeratu ongi etorri oparia

“Kirolaz Badakit”
mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Txoriak-txori”
lamina

%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

